

BERTSOKARIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ALDIZKARI DIGITALA

2020ko Ekaineko alea

MENDIALDEA

BERTSOZALE

BERTSO IKASGELA

[SARRERA](#) [ALBISTEAK](#) [GURI BURUZ](#) [IKASTETXEAK](#) [IKASLEEN TXOKOA](#)



PISTOLERO JOLASA

Hitz bat emango zaigu eta ea azkar sakatzen dugun berekin errimatzen duen hitza. Adi, tiroak huts egin gabe!

[Segi irakurtzen](#)



Berriro jolastu nahi?

Hauek dira aste honetan ikasgelatan egin ditugun jolasak!



Bertso sortak

Bertso jarriak, musikatuta. Kanta dezagun!



Bat-bateko saioak

Gozatu plazako bertsoaldi onenekin!



Xalbadorri txistuiak

Ekainaren 11 zen, 1967ko Txapelketa. Historiako une esanguratsuenetako bat gertatzera zihoan... Zer gertatu zen jakin nahi?

2020-06-10

Arabako Mendialdeko kuadrilaren eta Ikastetxeen elkarlanari esker urtero bertsolaritzaren inguruko programa eskaintzen da Lehen hezkuntza-ko ikastetxeetan. Guztira 2 ikastetxetako 7 gelatan landu dute Bertsolaritza. Oihane Perea 15ean behin ordu betez izan da gela bakoitzean. [Mendialdea IPI ikastetxeak](#) eta [Maeztu Eskolak](#) hartu dute parte.

Bertso-ikasgela izan da aurtengo protagonista nagusia, bai gela fisikoan baita birtualetan ere, sarean baitaude edukiak, haurren ekoizpenak, eta material osagarri guztiak. Horri esker konfinamenduan ere bertsolaritza modu dibertigarri batean lantzen jarraitzeko aukera egon da Mendialdean.

Hizkuntza jolasteko tresna bezala erabili dute, sortzeko eta euskara aberasteko aukera izan dute 100 ikaslek. Aurrez aurreko klaseak izan dituzte martxorarte eta martxotik ekainera bideodeiak eta plataform digitalak baliatu dira, www.bertsoikasgela.eus bidez elkarrekin bertsotan jarraitzeko. Aurrez aurre hobeto, baino esperientzia polita izan da!



GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA

Egín KLIK bertsoak ikusteko !!!

KANPEZU

Mendialdea IPI - LH

[Mendialdea IPI ikastetxea, 5. maila:](#) Sagutxo kaxkarina

[Mendialdea IPI ikastetxea, 5. maila:](#) Mirariri agurra

[Mendialdea IPI ikastetxea, 6. maila:](#) Iragarkiak

[Mendialdea IPI ikastetxea, 6. maila:](#) Agur 6. maila

Mendialdea IPI - DBH

[Mendialdea IPI ikastetxea, DBH 1. maila:](#) Ziberpuentinga Zuñigan

[Mendialdea IPI ikastetxea, DBH 2. maila:](#) Ziberpuentinga Zuñigan

ARRAIA-MAEZTU IKASETETXEA LH 3. zikloa

[Maeztu eskola 5. eta 6. maila:](#) Koronabirusari koplak

[Maeztu eskola 5. eta 6. maila:](#) Musikala bertsotan



MENDIALDEAN ere... bertsoa bizi gazte!



[O bella Ciao IKASKETA BIDAIA.](#)



[TRUMP, artaburu!](#)



[SARI BANAKETA ONLINE](#)

Ikasturte honetan zehar ere "Bertsoa Bizi Gazte" egitasmoa eraman da aurrera Arabako ikastetxe gehienetan. Egitasmo honen helburua bertsolaritza, rapa eta musika lantzea da. Bigarren Hezkuntza eta batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. Gure kasuan Mendialdea IPI ikastetxeko DBH 3. eta 4. mailako ikasleek bertsolaritza orduetan landu dute Oihane Perearekin hilabeteen behin.

Horrez gain "BBG" bideoklip lehiaketa jarri genuen martxan udaberrian. Araba osotik bideo desberdinak egin dituzte gazteek konfinamendu bete betean, gure eskualdetik 2 bideoklip aurkeztu direlarik: "Trump artaburu" eta "O Bella Ciao" ikasketa bidai birtuala. Ezkerreko zutabearen bidez bideoklipak eta horiek ikusteko loturak eta sari banaketa klik batean.

DBH 3. mailakoek lortu zuten saria eta Irailaren hasieran egonaldi bat izango dute beste sarituekin batera.

ZORIONAK parte hartzaile guztiei, hurrengo urtean gehiago eta hobeto!

INFORMAZIO GEHIAGO:



KUADRILARTEKOTIK OHOLTZAPERA

Azken urteetan bezala aurten ere Mendialdeak ordezkari izan du Kuadrilarteko bertso txapelketan. Urtarrilean hasi zen, eta urtarrilaren 26ean Korreseko tabernan izan zen eskualdeko saioa, afari eder baten ostean. Ohikoa den bezala umore ona eta giro ederra izan ziren nagusi. Konfinamenduan bertsoan jarraitu dute BERTSOLARRIEK online, eta Hala Bedi irratiko BERTXOKO IRRATSAIOARI esker baita [Irrati bidez ere](#). Eta bertso gosez daudela dirudi, COVID 19ak bertsoak sare sozialetara konfinatu baditu ere, "normaltasun berrian" udako bertsoak bueltatuko dira Arabar Mendialdeko plazetara... Momentuz apuntatu data hau agendatan saio ederra dugu laster eta.

[MAEZTUN OHOLTZAPETIK emanaldia](#)

Uztailak 10, ostirala, 20:00,

Manex Agirre, Manu Bendala, Rikardo Gonzalez de Durana eta Xabi Igoa

Gai-jartzailea: Eli Plazaola





XXV.

ESKOLARTEKOA

(14 urtez azpikoak)

Martxotik maiatzera bitartean, 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoek bertso idatzien lehiaketan parte hartzeko aukera izan dute. Bertsolaritza ikastetxean edo bertso-eskolan lantzen duten 700 ikasle

inguruk parte hartu dute. Ziber-festa, mozerro eta jai giroan eman zaio amaiera, 14tik beherakoen XXV. Arabako Bertso Eskolarteko online beriziari, nola bestela.

2020ko udaberrian Arabako haur zein gaztetxoek, etxetik, kobazuloaren barren barrenetik ateratakoak izan dira egindako bertso lanak. Saguzarren erara oinak buruan jarrita!

Zein animalia bihurtuko liratekeen, ikusezin balira zer egingo luketen edota mundua nola ikusten duten erakutsi dute errimak josiz, koplak osatuz. Egoerak egoera, aurtengoa ere polita izan da, eskerrik asko Araba mailan parte hartu duzuen 700 bertsolari txikiei.

Hurrengo urtean gehiago! Zahar zein gazte, sorgin eta saguzar, mutil zein neska, pirata edo yogalari, denak ere ameslari...

[SARI BANAKETA ONKLINE](#) ikusi dezakezue:

(Sarituek HONTZA EXTREM abentura parkean egun pasa izango dute irailaren 13an)

Lehen fasera igarotako lanak, tartean MENDIALDEKO lan aukeratuak hemen daude GOZATU:

[ESKUALDEZ ESKUALDEKO LAN AUKERATUAK](#)



BERTSO ESKOLAK

Mendialdeko bertso eskolak ez du etenik izan ikasturte amaiera arte, konfinamendu betean ere, jo ta ke aritu dira pantailatik pantailara, balkoitik balkoira, gaiak jarri eta bertsoetan elkar zirikatu eta ondo pasatuz.

Aisialdian gozatzeko arnagunea izan da bertso-eskola zailtasunen gainetik irudimenez eta irribarrez aritzeko tokia. Datorren ikasturtean animatu zu ere!



inscripción
online

[IZENA EMATEKO](#)

